

Herritarrak

2013ko martxoa

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2011-2015

7. alea



www.berastegi.com

HIRIGINTZA


UDALETXEAREN ZAHARBERRITZE-LANAK

Martxoaren 16an inauguratu zen ofizialki eraikina, Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusia eta Iñaki Errazkin Ingurumen eta Lurralde Antolamendu diputatua bertan zirela. Jende ugari bildu zen ekitaldira; eta alkatearen, diputatu nagusiaren eta ingurumen diputatuaren hitzak entzun ondoren, eraikina bisitatzeko eta hamaiketako egiteko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Esan behar da iparraldera begira dagoen fatxada konpondu beharra ikusten dela, leihoetatik ura filtratzen baita. Foru Aldundiari egin zaio laguntza eskaera, konponketa lanak finantzatzeko. 22.000 euroko gastua aurreikusten da.

Bigarren faserako, berriz, bigarren solairuko liburutegia, haur-liburutegia, irakurketa-gela, KZ-gunea eta gelak egokitzeko, alegia, 196.000 euroko gastua aurreikusten da. Badi-rudi Foru Aldundiak aurtun, behintzat, ez duela bigarren faserako dirurik aurreratuko. Beraz, beste aukera batzuk aztertu beharko dira laguntzak lortzeko.

Bestalde, zenbait herritarren eskaria kontuan hartuta, udaletxeko erlojuaren kanpaiak gauez itzali egingo dira; gaueko 10etatik goizeko 6etara, hain zuzen ere.



ETXEBIZITZAK

Ategiko Eremuaren Plan Berezia 2013ko martxoaren 13ko ohiko batzarrean onartu zuen Udalak. Orain, Foru Aldundiak eman behar dio baiezkhoa planari, ondo bidean hemendik 2 edo 3 hilabetera. Plan honek eraikinak eta errepideak non eta nola izan behar duten azaltzen du.

Orain, Hirigintza Jarduketa Programa, Kontzertazio Ituna, Urbanizazio Proiektua eta Birpartzelazioa egin behar dira. Birpartzelazioa egin ondoren (2014ko martxo aldera egitea aurreikusten da); Udala berea den lur zatiaren jabe izango da, eta etxeak eraikitzen eta urbanizazioa egiten hasi ahal izango da. Obrek 24 hilabete inguru iraungo dute.

Udalak, birpartzelazioa egin bitartean, proiektuak prestatzen joateko asmoa du; eta, proiektuak egin ahala, interesa dutenei erakusten, erosleen zerrenda eta etxebizitzaren zozketa egiten joatekoa, lanak aurreratuzko.

Etxebizitzari buruz egindako galdeketa, 6 lagunek egin zuten etxebizitza-eskaera. Inkesta horretan garbi ikusi zen jendeak aurreikusitakoak baino etxe handiagoak nahi zituela; eta, horregatik, aurreikusiak zeuden 8 etxebizitzaren tokian, 7 egitea erabaki da, handixeagoak.

HONDAKINEN KUDEAKETA

Udalak, bere planteamenduari jarraituz, herrian sortzen dugun hondakin organikoa herrian bertan kudeatzeko pausoak eman ditu dagoeneko:

- Azken asteotan, SPORA enpresako langileek etxez etxeko bisitak egin dituzte; alde batetik, lehendik autokonposta egiten dutenei jarraipena egiteko; eta, bestetik, hemendik aurrera etxe ondoan konpostaria egiteko aukera dutenei konpostagailu berriak banatzeko.
- Konpostaiari nahasteko behar den material lehorra eliz atarian prest dago dagoeneko, nahi eta behar duenak hartzeko.
- Autokonpostagailua jartzeko aukerarik ez dutenentzat, Udalak auzokonpostagailua jarriko du. SPORAK etxez etxe jasotako datuak aztertu ondoren, erabakiko da zenbat eta non jarriko diren.
- Gaur egun, hiru bilketa-gune ditugu (plazan, eskolaurrian eta eliz atarian), papera, plastikoa eta beira biltzeko. Auzoz auzo egindako bileretan, hala ere, herrian zehar birziklagune gehiago jartzea proposatu zen, eta halaxe egitea erabaki du Udalak. Ikusi beharko da non jar litezkeen.
- Errefusari dagokionez ere erabaki beharko da biltzeko sistemarik egokiena zein izango den.

MOTZEAN

- **Elkarleen diru-laguntzak:** 2013 urterako 12.000 euro (iaz baino zerbait gehixeago) aurreikusi dira elkartei banatzeko. Egitasmoen inguruko proiektuak jaso ditu Udalak; beraz, laster jakinaraziko zaio elkarte bakoitzari zer diru-laguntza jasoko duen.
- **Langile-kontratazioa:** Aurrekontuan langile bat kontratatzeko partida bat aurreikusi zen. Printzipioz, 3 hilabeterako kontratatuko da langilea, artxiboko agiriak eta dokumentuak txukundu eta antolatzeko. Horretarako deialdia laster egingo da.
- **Udalaren webgune eraberritua www.berastegi.com:** Webgune berria dugu. Webgune zaharraren truke, urteroko kuota ordaintzen zitzaion dmacroweb enpresari. Berria, ordea, dohainik izango da, eta lehen baino aukera hobek eskaintzen ditu. Bertan, udal tramitazioak ere egin daitezke. Hori dela eta, ikastaroak antolatuko dira KZ-gunean, tramitazioak nola egin daitezkeen ikasteko.
- **Eskualdeko komunikabideen bategitea:** Tolosaldean proiektu berri bat jarri da martxan, bertako komunikabideak bateratzeko: Galtzaundi, Hitza eta Txolarre Irratia. Hauek zerbitzu hobea eskaini nahi diete udalerriei, eta Udalek kuota bakarra ordainduko diete eskualdeko komunikabideei.
- **Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna:** Bat egin zuen Udalak egunarekin, eta antolatutako Emakumeen arteko jokoak arrakastatsuak izan ziren. Askok izan ziren parte hartu zutenak, baita ikustera hurbildu zirenak ere.
- **2013ko Zuhaitz Eguna:** Martxoaren 20an eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleek 25 pago landatu zituzten Gorosmendi inguruan.



KULTURA

- **2013ko Inauteriak:** Otsailaren 2an egin zen inauteri-festa herrian, eta eguraldiak askorik lagundu ez zuen arren, parte-hartze zabala izan zuen. Saio polita eskaini ziguten herriko dantzariak, eta afarian 120 lagun inguru bildu ziren. Urtez urte, gero eta jende gehiago animatzen da jaiari parte hartzera.